



<b>Arrazoa:</b>	Legazpi Bai! Ekimena kudeatuko duen taldearen bilera	<b>Akta zk.</b>	9
<b>Eguna:</b>	2010eko uztailaren 5ean	<b>Lekua:</b>	udaletxea
<b>Parte hartu dute:</b>			
SORGINTXULO (4 pertsona) NAGUSILAN (Jose Ramón Hernandez, Mari Jose Cantero, Rosario Espina)		BUZTINTEGI (Glori Mtez. De Guereñu) Juan Pedro Agirre Josean Larrea	
<b>Eguneko gaiak:</b>			
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ate irekien eguna</li> <li>2. Ekintzen laburpena, aurkeztutako proposamenak eta proposamen berriak</li> <li>3. Legazpi BAI! Ekimenaren egitura juridikoa: aurrerapena.</li> </ol>			

## BILERAN JASOTAKOAK

### 1 ATE IREKIEN EGUNA

Azkeneko bilera erabaki zenaren arabera, batzordeko kide bakoitza “ate irekien egunerako” herriko zein talderekin harremanetan jar daitezkeen zehaztu da. Honela geratu da banaketa:

BUZTINTEGI	Erakunde mota	Juan Pedro Agirre	Talde mota
ILINTXA	Elkarte gastronomikoa	DANANTZAKO	Kirola
IZADI	Elkarte gastronomikoa	IRULE	Kultura
OKILLA	Elkarte gastronomikoa	LEKANAZPI	Elkarte gastronomikoa
CAZA Y PESCA	Elkarte gastronomikoa	ILINTXA	Kirola
Josean Larrea	Erakunde mota	SORGINTXULO	Talde mota
IZADI ZALEAK	Elkarte gastronomikoa	LEGAZPI GAZTEAK Kirola eta Pilota	Kirola
LAGUN ARTEA	Elkarte gastronomikoa	SUBELTZA	Gazteak
MURU	Elkarte gastronomikoa	BERTSO OLARIAK	Kultura
ESKUBALOIA	Elkarte gastronomikoa	GOIZ DEIA	Kultura
IKATZA	Kirola		
ZINE KLUB	Kultura		
MUSIKA BANDA	Kultura		
ABESBATZA	Kultura		
KOROSTI	Kultura		
SUSTRAIAK	Kultura		

Urrian talde horiekin harremanetan jarriko dira eta egin nahi dugunaren berri emango zaie; modu berean, elkarrekin hitz egiteko eguna zehazten saiatuko gara.



Egun edo jardunaldi horren antolaketari dagokionez, Jose Ramonek herriko elkarte eta talde desberdinekin elkarrizketatu baino lehen gauza asko zehaztu beharra dagoela esan du: **nola egingo den, zein azpi-egitura ditugun**, herriko taldeek erakutsi nahi dutena erakusteko **zelako baliabideak eskainiko zaizkien, zer komunikatuko den**,.... etab.

Proiektuaren eta ate irekien egunaren berri herriko elkarteei emateko txosten bat prestatuko da eta txosten horretan honakoak jasoko dira:

- Legazpi BAI! proiektuaren helburuak
- “Ate irekien egunaren” helburuak
- World Cafe ekimenaren dinamika

Modu berean, irailetik azarora musika-talde, antzerki-talde,... desberdinak identifikatuko dira, horiekin arratsaldeko eta gaueko orduak antolatzeko. Horretarako, ona izango litzateke SORGINTXULO taldearen eta Oskar Abad kidearen laguntza jasotzea.

## 2 EKINTZEN LABURPENA ETA PROIEKTUEN PROPOSAMENA

### 2.1 EKINTZEN LABURPENA

#### Urtarrilean egindakoa

1. Bilera ORKESTRAREkin - Deustuko Unibertsitateko Euskal Lehiakortasunaren Institutua
2. Belaunaldien arteko Harremanak aurkeztu da Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailean.
3. Bilera GIPUZKOA BERRITZEN taldearekin
4. Bisitak CoP taldeko enpresetara

#### Otsailean egindakoa

1. Bilera BIC BERRILAN taldearekin – Enpresa eta Berrikuntza zentroa
2. OP-ACT proiektuaren lehenengo bilera
3. Bilera EUDELEkin Tokiko Berrikuntza Agendei buruzko proposamena berria ezagutzeko eta Legazpi BAI! Proiektua aurkezteko
4. Bisitak CoP taldeko enpresetara

#### Martxoan egindakoa

1. Bilera FUNKY PROJECTS taldearekin Gazteekin garatzeko proiektu bat proposatzeko
2. Negoziazioak GUREAK taldearekin, proiektu berriei ekiteko lurzoru industrialaren beharrari buruz
3. OP-ACT proiektuko Hans-uve Schwedler jaunaren bisita
4. Cornelláko CitiLab delakoarekin lankidetzaren esparrua zehaztea

#### Apirilean egindakoa

1. Bilera enpresetako CoP delakoarekin, lankidetzaren proiektuak zehazteko
2. Belaunaldien arteko harremanetarako CoP delakoaren aurkezpena Gazte-txokoan



### Maiatzean egindakoa

1. Parte hartzea EISCO kongresuan – Lehen harremana Eusko Jaurlaritzako Informazio Gizartearen departamentuko zuzendariarekin eta teknikariarekin Legazpi BAI! Proiektua aurkezteko.

### Ekainean egindakoa

1. Austriako Styria probintziako Eskualdeko Gobernuko ordezkarien bisita
2. Bilera ORKESTRAn Eskualdeko Sareak garatzeko
3. CoP delakoko enpresen ezagueren eta gabezien mapak zehaztea.
4. Bilera EUDELekin Tokiko Berrikuntza Agenden (TBA) programari buruz

## 2.2 PROPUESTAS PRESENTADAS Y PENDIENTES DE RESOLUCIÓN

Hurrengo taulan, programa eta finantziazio-lerro desberdinetan aurkeztu diren proiektuen laburpena dator eta haien egoera zehazten da:

Proposamena	Erakuntzea	Aurrekontua	Eskatutakoa	Egoera
Belaunaldien Harremanen CoP	arteko Eusko Jaurlaritza	8.860,00	6.600,00	ONARTUA
OP-ACT	URBACT-UE	44.160,00	30.912,00	ERANTZUTEKO
Legazpi Living Lab	GFA	66.383,40	49.797,50	ERANTZUTEKO
Lankidetzak udalerriekin	Erkidegoko EJ	119.596,00	119.596,00	ERANTZUTEKO

## 2.3 PROPOSAMEN BERRIAK

### Funky Projects

Proposamen honen helburua gazteen ikuspegia Legazpi BAI! proiektuan txertatzea da eta horien parte hartzea bilatzen da. Horretarako Funky Projects taldearen aholkuak jasoko ditugu; sormenean eta metodo berritzaileetan espezializatuta dagoen aholkularitza da eta gazteekin bi esperientzia interesgarri burutu ditu Mungian eta Irunen. Aukera dago proiektu hori Europar Batasuneko “Gazteak martxan” programaren deialdian aurkezteko eta dirulaguntza jasotzeko. Dena den, ekimen horri 2011n ekingo diogu.

### Tokiko Berrikuntza Agendak (TBA)

Legazpiko udaletxean Tokiko Berrikuntza Agenda bat egitea da helburua. EUDELe, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek bultzatutako ekimena da, udaletako egitura eskainiko diren egoera eta zerbitzu berrietara egokitzeko.

Hainbat alderdiri buruz barruko **azterketa eta hausnarketa** egiteko prozesua da. Hauek dira aztertuko diren alderdi desberdinak: **barne-antolaketa** (egitura, departamentuak, talde-lana,...), **herritarrei eskaintzen zaion arreta** (eskainitako zerbitzuak, zerbitzu horien kalitatea, eskaintzeko moduak,...) eta **lurraldeari eskaintzen zaion arreta** (zer eskaintzen



den...). Agenda horretan arlo bakoitzean egingo edo burutuko diren proiektu berritzaileak zehaztuko dira.

Ariketa hori udaletxean ordezkariak duten politikariek egingo da alde batetik eta, bestetik udaletxean lan egiten duten teknikariek egingo da. Udalaren esku geratuko da dauden departamentuetatik nork hartuko duen parte.

Ekimen horretarako 6.000,00 euroko diru-laguntza dago eta diru hori prozesua bideratzeko EUDELEk homologatutako aholkularitza kontratatzeko izango da. Guztira, 3 edo 5 lansio izango dira lehen esandako taldeekin.

EUDELEk irailean hasi nahi ditu Agenda horiek eta abendurako bukatu. Proiektuaren hasieran EUDELen ardura izango da parte hartzaile guztiei Tokiko Berrikuntza Agenda (TAB) zer den adieraztea.

Modu berean EUDELen asmoa kudeaketarako eta berrikuntzarako gaietan laguntza eta prestakuntza prestatzeko erremintak eskaintzea da. Erreminta horiek zuzendaritzakoei eskainiko die, hau da, idazkariei, kontu-hartzaileei, alkateei,....

## 2.4 LEGAZPI BAI! EKIMENAREN EGITURA JURIDIKOA: AURRERAPENA.

Ainhoa ez dagoen bitartean, Legazpi BAI! ekimenaren egitura juridikoak ondoko urrats hauek jarraituko ditu:

1. EKAIN aholkularitzak Fundazioko Estatutuak egingo ditu eta prest izango ditu Ainhoa lanera itzultzen denerako, kudeaketaz arduratuko den taldeari aurkezteko.
2. EKAIN aholkularitzak Udalak Fundazio Pribatu batean parte har dezan egin behar duen txostena eta memoria egingo ditu.

## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Konpromisoa	Pertsona	Eguna
Musika-taldeen, antzerki-taldeen,.... Zerrenda egitea.	SORGINTXULO eta Oscar Abad	Iraila-azaroa
Komunikatuko den eta zabalduko den informazioa prestatzea.	Ainhoa eta Josean Larrea	Azaroa
Elkarteekin lehenengo harremanak izatea	Guztiak	Urria